472	Las personas titulares de establecimientos y las organizadoras de espectáculos o actividades recreativas tienen derecho a que la publicidad de los espectáculos y las actividades recreativas se ajuste a los principios de veracidad y suficiencia, y no contenga informaciones que puedan inducirles a error ni que puedan generar fraude.	Establezimenduen titularrek eta antolatzaileek ikuskizun eta jolas-jarduerei buruz egiten den publizitatea egiazkotasun- eta nahikotasun-printzipioen arabera izateko eskubidea daukate, eta publizitate horrek okerreko iritzirik edo iruzurra eragin dezakeen informaziorik ez izateko eskubidea.
	<p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
473	El miedo puede llevar a experimentar una sensación de pérdida de control.	Beldurrak kontrol-galeraren sentsazioa eragin dezake.
	<p>A. Falso.</p> <p>B. Verdadero.</p>	<p>A. Gezurra.</p> <p>B. Egia.</p>
474	En una parada cardiorrespiratoria, el daño cerebral ocurre por:	Bihotz-biriketako gelditze batean, burmuina kaltetzearen arrazoia hau izaten da:
	<p>A. La falta de aireación.</p> <p>B. La falta de consciencia.</p> <p>C. La falta de oxígeno en el cerebro.</p> <p>D. La falta de pulso.</p>	<p>A. Airerik ez egotea.</p> <p>B. Konorterik gabe egotea.</p> <p>C. Burmuinean oxigenorik ez egotea.</p> <p>D. Pultsurik ez izatea.</p>
475	La utilización de apósitos hemostáticos para el control de la hemorragia:	Hemorragia kontrolatzeko apositu hemostatikoak erabiltzea:
	<p>A. Consiste en ejercer presión manual o utilizar un vendaje compresivo.</p> <p>B. Consiste en realizar un torniquete.</p> <p>C. Se utilizan cuando la herida está en una localización en la que la presión directa no es posible, como cuello, abdomen o ingle.</p> <p>D. Todas las respuestas son correctas.</p>	<p>A. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.</p> <p>B. Tornikete bat egitean datza.</p> <p>C. Zauria zuzeneko presioa egiterik ez dagoen leku batean (esaterako, lepoa, abdomeno edo iztondoa) kokatuta dagoenean erabiltzen dira.</p> <p>D. Erantzun guztiak zuzenak dira.</p>

476	Las heridas incisivas:	Zauri ebakiak:
	A. Son causadas por un agente romo, sin filo ni punta.	A. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
	B. Son producidas por agentes cortantes, se caracterizan por bordes de la herida limpios y regulares. Son sangrantes.	B. Objektu ebakitzaileek sortutakoak dira eta horien ezaugarria da zauriaren ertzak garbiak eta erregularrak izan ohi direla. Odola darien zauriak dira.
	C. Son producidas por agentes puntiagudos y alargados; en ellas predomina la profundidad.	C. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
477	Es un principio orientador de la ley el respeto de los derechos de las personas, y garantizar el derecho al desarrollo y la convivencia normalizada a terceros.	Legearen printzipio gidarietako bat da pertsonen eskubideak errespetatzea, eta hirugarrenei bermatzea garatzeko eta bizikidetzan normalizatua izateko eskubidea.
	A. Falso	A. Gezurra
	B. Verdadero	B. Egia
478	Tratamiento de heridas graves:	Zauri larrien tratamendua:
	A. Si hay cuerpos extraños enclavados, hay que aplicar agua oxigenada para facilitar su extracción.	A. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, ur oxigenatua bota behar da horiek errazago atera ahal izateko.
	B. Si hay cuerpos extraños enclavados, hay que extraerlos lo antes posible.	B. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
	C. Si hay cuerpos extraños enclavados, hay que fijarlos para evitar que se muevan durante el traslado a la víctima y causen nuevos daños en su interior.	C. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, finkatu behar dira, biktima lekualdatzean mugi ez daitezen, eta biktimaren barruan kalte gehiago eragin ez dezaten.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
479	Tratamiento de heridas graves:	Zauri larrien tratamendua:
	A. Hay que controlar la hemorragia colocando a la persona en decúbito supino.	A. Odol-jarioa kontrolatu behar da pertsona hori ahoz gora jarriz.
	B. Hay que controlar la hemorragia y prevenir el shock, colocando a la persona herida en la posición más adecuada según la localización de la herida.	B. Odol-jarioa kontrolatu behar da eta shocka prebenitu, zauriaren kokapenaren arabera zauritua jarrera egokienean jartzeko.
	C. Ninguna de las respuestas es correcta.	C. Erantzun guztiak okerrak dira.
	D. Si hay cuerpos extraños enclavados, hay que extraerlos lo antes posible.	D. Gorputz arrotz iltzatuak badaude, lehenbailehen atera behar dira.
480	Según la gravedad, las heridas se clasifican en:	Larritasun-mailaren arabera, zauriak honela sailkatzen dira:
	A. Heridas graves y heridas leves.	A. Zauri larriak eta zauri arinak.
	B. Heridas incisivas, heridas contusas, heridas punzantes y heridas por arrancamiento.	B. Zauri ebakiak, zauri makatuak, objektu zitzakariak sortutako zauriak eta erazteen ondoriozko zauriak.
	C. Heridas lineales, heridas en colgajo y heridas con pérdida de sustancia.	C. Zauri linealak, zintzilikario itxurako zauriak eta substantzia galtzea eragiten duten zauriak.
	D. Ninguna de las respuestas es correcta.	D. Erantzun guztiak okerrak dira.
481	En caso de shock al herido se le colocará:	Zauritua shock-egoeran badago horrela jarri behar dugu:
	A. Sentado.	A. Eserita.
	B. Tumbado boca abajo con los pies elevados.	B. Ahoz behera etzanda eta hankak igota.
	C. Tumbado boca arriba con la cabeza elevada.	C. Ahoz gora etzanda eta burua igota.
	D. Tumbado boca arriba con los pies elevados.	D. Ahoz gora etzanda eta hankak igota.
482	El uso del torniquete para el control de la hemorragia:	Hemorragia kontrolatzeko torniketean erabiltzea:
	A. Consiste en ejercer presión manual o utilizar un vendaje compresivo.	A. Eskuzko presioa egitean edo konpresioa egiten duen hesgailua erabiltzean datza.
	B. Debe considerarse el último recurso y sólo se usará si la vida de la víctima corre peligro.	B. Azken baliabidetzat hartu behar da eta biktimaren bizitza arriskuan dagoenean baino ez da erabili behar.
	C. Se introducen en la herida y se presiona entre dos y cinco minutos.	C. Horiek zaurian sartzea da eta bi minututik bostera bitartean presioa egitea.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
483	Una herida perforante en el tórax:	Toraxa zulatzen duen zauri bat:
	A. No es una lesión preocupante, pues no hay peligro de muerte.	A. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.
	B. Puede causar neumotórax, o acumulación de aire en la cavidad pleural, de gravedad variable.	B. Neumotoraxa eragin dezake, pleura-barrunbean aire-pilaketa, eta horrek larritasun-maila desberdinak izan ditzake.
	C. Se tratan como heridas contusas.	C. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
484	Adoptar las medidas que estimen pertinentes para garantizar el funcionamiento del establecimiento abierto al público, el espectáculo o la actividad en condiciones de seguridad y de calidad es:	Egoki irizitako neurriak hartzea, jendearentzat irekitako establezimendua, ikuskizunak edo jarduerak segurtasunez eta kalitatez funtzionatuko duela bermatzeko:
	A. Nadie tiene derecho a adoptar esas medidas.	A. Inork ez dauka neurri horiek hartzeko eskubidea.
	B. Un derecho de la administración.	B. Administrazioaren eskubidea da.
	C. Un derecho del espectador.	C. Ikuslearen eskubidea da.
	D. Un derecho del organizador.	D. Antolatzailearen eskubidea da.
485	Es obligación de las personas titulares y organizadoras:	Titularrek eta antolatzaileek betebeharrak hau daukate:
	A. Evitar que, con ocasión de la celebración de espectáculos públicos o desarrollo de actividades recreativas, se produzcan ruidos y molestias desde el establecimiento público, o sus instalaciones accesorias, que afecten al exterior del mismo.	A. Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.
	B. Mantener en todo momento los establecimientos e instalaciones en perfecto estado de funcionamiento, y realizar las comprobaciones que sean obligatorias de acuerdo con la normativa vigente.	B. Une oro eduki beharko dituzte establezimendua eta instalazioak akatsik gabe funtzionatzeko moduan, eta aplikatzeko zaien araudian aurrekusten diren frogak egin beharko dizkiete.



	C. Permitir y facilitar las inspecciones que acuerden las autoridades competentes.	C. Agintaritz eskudunek erabakitako ikuskapen-lanak egiten uztea, eta lanok egiten laguntzea.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
486	Si hubiera alteraciones del orden en los accesos:	Sarreretan ordenaren nahasmenduak gertatuz gero:
	A. El personal de admisión debe comunicarlo al organizador.	A. Onarpen-zerbitzuko langileek antolatzaileari jakinarazi behar diote.
	B. El personal de admisión debe restablecer el orden.	B. Onarpen-zerbitzuko langileek ordena berrezarri behar dute.
	C. El personal de admisión informará al personal de seguridad privada o si no hay vigilantes de seguridad privada, informará directamente a los cuerpos de policía del País Vasco en el ejercicio de sus respectivas competencias.	C. Onarpen-zerbitzuko langileek segurtasun pribatuko langileei jakinaraziko diete edo, segurtasun pribatuko zaintzailek egon ezean, Euskadiko polizia kidegoei jakinaraziko diete zuzenean, dagozkien eskumenak erabiliz.
	D. El personal de admisión no hará nada.	D. Onarpen-zerbitzuko langileek ez dute ezer egingo.
487	Según el Artículo 52 del Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, se permitirá la entrada de personas menores de dieciocho años acompañadas de mayores de edad en establecimientos de esparcimiento erótico.	Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuko 52. artikulua arabera, hemezortzi urtetik beherakoak, adin nagusikoek lagunduta, aisialdi erotikoko establezimenduetan sartu ahal izango dira.
	A. Falso	A. Gezurra
	B. Verdadero	B. Egia
488	Según la forma, son heridas lineales:	Formaren arabera saillapenean, zauri linealak hauek dira:
	A. Aquellas que dibujan una línea (recta, curva, estrella, etc.)	A. Lerro baten itxura duten horiek (lerro zuzena, kurbatua, izarra, etab.)
	B. Ninguna de las respuestas es correcta.	B. Erantzun guztiak okerrak dira.
	C. Son causadas por un agente romo, sin filo ni punta.	C. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.
	D. Son producidas por agentes puntiagudos y alargados; en ellas predomina la profundidad.	D. Objeto zorroztu eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.
489	Una de las funciones del personal del servicio de admisión es advertir a los clientes de la imposibilidad de salir con la bebida al exterior.	Onarpen-zerbitzuko langileen egikizunetako bat da bezeroei ohartaraztea edariek ezin direla kanpora atera.
	A. Falso	A. Gezurra
	B. Verdadero	B. Egia
490	Son síntomas de shock:	Shockaren sintomak hauek dira:
	A. La cianosis en mucosas y labios.	A. Zianosiak mukosetan eta ezpainetan.
	B. Las intervenciones quirúrgicas.	B. Interbentzio kirurgikoak.
	C. Las intoxicaciones.	C. Intoxicazioak.
	D. Ninguna de las respuestas es correcta.	D. Erantzun guztiak okerrak dira.
491	Síntoma general de hemorragia:	Hemorragiaren sintoma orokorra:
	A. Ninguna de las respuestas es correcta.	A. Erantzun guztiak okerrak dira.
	B. Respuesta a estímulos dolorosos.	B. Estimulu mingarriei erantzutea.
	C. Rigidez del cuello.	C. Lepo zurruna.
	D. Vértigos, visión borrosa, incluso inconsciencia.	D. Bertigoak, ikusmen lausoa, baita konortea galtzea ere.
492	No permitir el acceso a las personas que no cumplan las condiciones establecidas por la persona titular	Titularrak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen sarrera galaraztea
	A. Corresponde al organizador.	A. Antolatzaileari dagokio.
	B. Es función de la policía.	B. Poliziaren egitekoa da.
	C. Es función del personal de admisión.	C. Onarpen-zerbitzuko langileen egitekoa da.
	D. Es función del personal de seguridad privada.	D. Segurtasun pribatuko langileen egitekoa da.
493	Se denominan establecimientos abiertos al público en régimen especial aquellos que pueden afectar más intensamente la convivencia entre los ciudadanos, la seguridad o la salud.	Jendearentzat irekitako establezimendu araubide berezikoak dira herritarren bizikidetzari, segurtasunari edo osasunari biziago eragin diezaieketen establezimenduak.
	A. Falso	A. Gezurra
	B. Verdadero	B. Egia
494	Las heridas en la cabeza:	Buruko zauriak:
	A. Pueden afectar a las partes semirrígidas.	A. Alde erdi-zurrunei eragin diezaiekete.
	B. Pueden combinarse con una lesión en el encéfalo.	B. Horiek batera, entzefaloko lesio bat ere gerta daiteke.
	C. Sólo afectan a las partes blandas.	C. Bakarrik alde bigunei eragiten diete.
	D. Todas las respuestas son correctas.	D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
495	Cuál de estos NO son deberes de los organizadores.	Hauetako zein EZ da antolatzaileen betebeharra?
	A. Adoptar cuantas medidas de seguridad y salubridad, así como de control del nivel de ruido, se establezcan con carácter general o sean fijadas específicamente en las correspondientes licencias o autorizaciones.	A. Segurtasun- eta osasungarritasun-arloko neurri guztiak hartzea, baita zaratak neurtzeko oro har ezartzen direnak edo dagozkien lizentzia edo baimenetan berariaz ezartzen direnak ere.
	B. Asegurar que todas aquellas personas que tengan interés en asistir al espectáculo o quieran participar en la actividad recreativa organizada pueda hacerlo, realizando para ello las sesiones que sean necesarias.	B. Bermatzea antolatutako ikuskizunera joan edo jolas-jardueran parte hartu nahi duten pertsona guztiak egin ahal izango dutela, horretarako behar beste saio emanez.
	C. Evitar que, con ocasión de la celebración de espectáculos públicos o desarrollo de actividades recreativas, se produzcan ruidos y molestias desde el establecimiento público, o sus instalaciones accesorias, que afecten al exterior del mismo.	C. Jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduerarik eginez gero, saihestea eragozpenik sortzea edo zaratarik egitea establezimendu publikoetatik kanpo edo horien instalazio osagarrietatik kanpo.

	D. Mantener en todo momento los establecimientos e instalaciones en perfecto estado de funcionamiento, y realizar las comprobaciones que sean obligatorias de acuerdo con la normativa vigente.	D. Funtzionatzeko egoera ezin hobean mantentzea beti establezimendu eta instalazioak, eta indarrean den araudiaren arabera egin beharreko egiaztapenak egitea.
496	El personal de servicio de admisión es personal desarmado cuya misión no es guardar la seguridad ni el orden, no tiene que proteger la seguridad del establecimiento, ni evitar delitos, ni se le puede pedir que se enfrente a situaciones de amenaza más allá de lo que se puede pedir a una persona	<b>Onarpen-zerbitzuko langileek ez dute armarik eta haien eginkizuna ez da segurtasuna eta ordena zaintzea, ez dute establezimenduen segurtasuna babestu behar, ez delituak ekidin behar eta ezin zaie mehatxu-egoerei aurre egiteko eskatu, pertsona normal bati eskatu ahal zaionetik haratago.</b>
	A. Falso B. Verdadero	A. Gezurra B. Egia
497	¿Cuál es el procedimiento en caso de OVACE (Obstrucción de vías aéreas por cuerpo extraño)?	<b>GAAB (Gorputz arrotz batek arnasbidea buxatzea) gertatuz gero, zein da prozedura?</b>
	A. Se averigua la gravedad; si se detecta que la obstrucción es ligera, se anima a toser, valorando si se revierte la obstrucción. B. Se golpea energética y repetidamente la espalda de la víctima, salvo que sea menor de edad. C. Se golpea energética y repetidamente la espalda de la víctima. D. Se realiza la maniobra Heimlich sin pérdida de tiempo.	A. Larritasun maila zein den aztertu behar da, buxatzea arina dela ikusiz gero, eztula egitera animatu eta ikusi buxatzea desagertzen den. B. Biktimari bizkarrean kolpe indartsuak eman behar zaizkio behin eta berriz, salbu eta adingabea bada. C. Biktimari bizkarrean kolpe indartsuak eman behar zaizkio behin eta berriz. D. Denbora galdu gabe, Heimlich maniobra egin behar da.
498	Según la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, ¿Con qué edad mínima se permitirá la entrada y permanencia de personas en salas de baile y discotecas?	<b>Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, dantza-aretoetan eta diskoteketan sartzen eta egoten uzteko, gutxieneko adina zein da?</b>
	A. Con 14 años, siempre que se cumplan determinadas condiciones. B. Con 16 años, siempre que se cumplan determinadas condiciones. C. Con 16 años. D. Con 18 años.	A. 14 urte, baldin eta baldintza zehatz batzuk betetzen badira. B. 16 urte, baldin eta baldintza zehatz batzuk betetzen badira. C. 16 urte. D. 18 urte.
499	Tratamiento de heridas perforantes en el tórax:	<b>Toraxa zulatzen duten zaurietarako tratamendua:</b>
	A. No es una lesión preocupante, pues no hay peligro de muerte. B. Se debe cubrir la herida con parches que sean impermeables al aire y colocar al herido en posición anti-shock. C. Se tratan como heridas contusas. D. Todas las respuestas son correctas.	A. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua. B. Zauria airearekiko iragazgaitzak diren txaplatekin estali behar da eta zauritua shockaren aurkako jarreran ipini behar da. C. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira. D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
500	Comprobar la edad de las personas:	<b>Pertsonen adina egiaztatzea:</b>
	A. Es una función del organizador. B. Es una función del personal de admisión. C. Es una función del personal de seguridad privada. D. Es una función del personal de seguridad.	A. Antolatzailearen eginkizuna da. B. Onarpen-zerbitzuko langileen eginkizuna da. C. Segurtasun pribatuko langileen eginkizuna da. D. Segurtasuneko langileen eginkizuna da.
501	Se entienden excluidas del ámbito de aplicación de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas:	<b>Jendaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legearen aplikazio eremutik kanpo daude hauek:</b>
	A. Las actividades que se realicen en el ejercicio de los derechos de reunión y manifestación. B. Las celebraciones estrictamente privadas, de carácter familiar o social, que no estén abiertas a la concurrencia pública. C. Las celebraciones religiosas. D. Todas las respuestas son correctas.	A. Biltzeko eta manifestatzeko eskubidea gauzatzeko asmoz antolatutako jarduerak. B. Ospakizun familiar eta sozial erabat pribatuak, jende guztiarentzat ez direnak. C. Ospakizun erlijiosoak. D. Erantzun guztiak zuzenak dira.
502	Tratamiento de heridas perforantes en el tórax:	<b>Toraxa zulatzen duten zaurietarako tratamendua:</b>
	A. Ninguna de las respuestas es correcta. B. No es una lesión preocupante, pues no hay peligro de muerte. C. Se debe cubrir la herida con parches que sean impermeables al aire y colocar al herido en posición anti-shock. D. Se tratan como heridas contusas.	A. Erantzun guztiak okerrak dira. B. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua. C. Zauria airearekiko iragazgaitzak diren txaplatekin estali behar da eta zauritua shockaren aurkako jarreran ipini behar da. D. Zauri makatuak balira bezala tratatu behar dira.
503	Las diferencias entre shock, síncope (vahído) y coma se basan en el estado de consciencia y el pulso de la víctima.	<b>Shock-a, sinkopea (zorabioa) eta komaren arteko desberdintasuna biktimaren konorte-egoeran eta pultsuan datza.</b>
	A. Falso B. Verdadero	A. Gezurra B. Egia
504	La correcta colocación del torniquete:	<b>Torniketean ondo jartzeko:</b>
	A. Hay que colocarlo exactamente sobre la herida, teniendo precaución de no infectarlo. B. Lo único importante es apretarlo fuertemente. C. Ninguna de las respuestas es correcta. D. No hay que colocarlo nunca debajo de la rodilla o el codo.	A. Zauriaren gain-ganean jarri behar da, eta ez infektatzeko kontuz ibili behar da. B. Gogor estutzea da garrantzikoena. C. Erantzun guztiak okerrak dira. D. Inoiz ez da belanaren edo ukondoaren azpian jarri behar.
505	¿Cuál de las siguientes es función del servicio de admisión?	<b>Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?</b>
	A. Controlar que en ningún momento la afluencia de público supere el aforo máximo autorizado y, en consecuencia, abrir las puertas para aumentar el aforo. B. Controlar que en ningún momento la afluencia de público supere el aforo máximo autorizado y, en consecuencia, cerrar los accesos.	A. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, atek ireki edukiera handitzeko. B. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, sarbideak ixtea.

	<p>C. Controlar que en ningún momento la afluencia de público supere el aforo máximo autorizado y, en consecuencia, no permitir la entrada de más público.</p> <p>D. Controlar que en ningún momento la afluencia de público supere el aforo máximo autorizado y, en consecuencia, ponerse en contacto con los responsables para tomar medidas.</p>	<p>C. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gaitzen kontrolatzea eta, ondorioz, ikus-entzule gehiagori sartzen ez uztea.</p> <p>D. Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gaitzen kontrolatzea eta, ondorioz, arduradunekin harremanetan jartzea neurriak hartzeko.</p>
506	<p>Se exigirá DRP o plan de autoprotección según el aforo.</p> <p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p>Edukieraren arabera ADAB edo autobabes-plana eskatuko da:</p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
507	<p>Se consideran heridas leves:</p> <p>A. Cortes y heridas superficiales, que no afectan a órganos o vasos importantes.</p> <p>B. Heridas extensas y profundas, con hemorragia severa.</p> <p>C. Heridas por mordedura.</p> <p>D. Ninguna de las respuestas es correcta.</p>	<p>Zauri arinak hauek dira:</p> <p>A. Azaleko ebaki eta zauriak, organo edo hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak.</p> <p>B. Zauri zabal eta sakonak, odol-jario larria dutenak.</p> <p>C. Hozkaden ondoriozko zauriak.</p> <p>D. Erantzun guztiak okerrak dira.</p>
508	<p>En caso de no disponer de un torniquete comercial:</p> <p>A. Ninguna de las respuestas es correcta.</p> <p>B. No se podrá realizar la técnica del torniquete.</p> <p>C. Se puede improvisar uno.</p> <p>D. Se puede utilizar un alambre o un cordón.</p>	<p>Tornikete komertzial bat izan ezean:</p> <p>A. Erantzun guztiak okerrak dira.</p> <p>B. Ezin izango da torniketearen teknika erabili.</p> <p>C. Tornikete bat inprobisa daiteke.</p> <p>D. Alanbre edo kordoi bat erabil daiteke.</p>
509	<p>Es deber de las personas espectadoras o asistentes a los espectáculos o actividades recreativas, así como de la clientela de los establecimientos públicos:</p> <p>A. Abstenerse de exhibir símbolos, prendas u objetos que inciten a la violencia, al odio o supongan apología de actividades contrarias a los derechos fundamentales, y, en especial, que inciten al racismo, la xenofobia o la discriminación.</p> <p>B. Cumplir los requisitos o las normas de acceso y admisión establecidos con carácter general por el organizador dentro de los límites marcados por la ley.</p> <p>C. No llevar armas ni otros objetos que puedan ser utilizados con finalidades violentas.</p> <p>D. Todas las respuestas son correctas</p>	<p>Ikuskizun eta jolas-jardueren ikusleek edo ekitaldi horietara joaten direnek eta establezimendu publikoetako bezeroek betebeharrak hau daukate:</p> <p>A. Ez erakustea indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten ikurak, jantziak edo objektuak edo oinarriko eskubideen kontrako apologia adierazten dutenak, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo bazterkeria sustatzen dutenak.</p> <p>B. Antolatzaileak jendea sartzeko eta onartzeko ezartzen dituen baldintza orokorrak betetzea, betiere legeak finkatutako mugen barruan.</p> <p>C. Ez eramatea inolako armarik edota indarkeria eragiteko erabil daitezkeen bestelako objekturik.</p> <p>D. Erantzun guztiak zuzenak dira.</p>
510	<p>¿Cuál de las siguientes es función del servicio de admisión?</p> <p>A. Garantizar que las personas con discapacidad puedan acceder al local o instalación y disfrutar de los espectáculos y actividades con las mismas condiciones que el resto de los asistentes.</p> <p>B. Garantizar que las personas con discapacidad puedan acceder al local o instalación y disfrutar de los espectáculos y actividades en las condiciones adecuadas de accesibilidad, igualdad e inclusión.</p> <p>C. Garantizar que las personas con discapacidad puedan acceder al local o instalación y disfrutar de los espectáculos y actividades en las localidades reservadas al efecto.</p> <p>D. Garantizar que los actuantes y su equipo técnico puedan acceder al local o instalación y disfrutar de los espectáculos y actividades en las condiciones adecuadas de accesibilidad, igualdad e inclusión.</p>	<p>Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?</p> <p>A. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizun eta jardueren gainerako pertsona guztien baldintza berberetan gozatu ahal izango dutela bermatzea.</p> <p>B. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizun eta jardueren irigarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokietan gozatu ahal izango dutela bermatzea.</p> <p>C. Desgaitasuna daukaten pertsonak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta horretarako erreserbatuta dauden eserlekuetan ikuskizun eta jardueren gozatu ahal izango dutela bermatzea.</p> <p>D. Artistak eta haien talde teknikoak lokalera edo instalaziora sartu ahal izango direla eta ikuskizun eta jardueren irigarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintza egokietan gozatu ahal izango dutela bermatzea.</p>
511	<p>El personal de admisión debe facilitar las inspecciones y controles reglamentarios a las personas que realicen estas funciones.</p> <p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p>Onarpen-zerbitzuko langileek erregelamenduzko kontrol eta ikuskapenak egitea ahalbidetu behar diete lan horiek egiten dituzten pertsonen.</p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
512	<p>¿Es posible impedir la entrada una vez comenzado el espectáculo?</p> <p>A. No, en ningún caso.</p> <p>B. Sí, en todo caso.</p> <p>C. Sí, si se trata de menores de edad.</p> <p>D. Sí, siempre que se recoja esta posibilidad en las condiciones objetivas de admisión del establecimiento o espectáculo.</p>	<p>Ikuskizuna hasita dagoenean sartzen ez uzteko aukera badago?</p> <p>A. Ez, inolara ez.</p> <p>B. Bai, beti.</p> <p>C. Bai, adingabeak badira.</p> <p>D. Bai, baldin eta establezimenduan edo ikuskizunean onartzeko baldintza objektiboetan aukera hori jasota badago.</p>
513	<p>Síntoma general de hemorragia:</p> <p>A. Astenia o fatiga.</p> <p>B. Respuesta a estímulos dolorosos.</p> <p>C. Rigidez del cuello.</p> <p>D. Todas las respuestas son correctas.</p>	<p>Hemorragiaren sintoma orokorra:</p> <p>A. Astenia edo nekea.</p> <p>B. Estimulu mingarriei erantzutea.</p> <p>C. Lepo zurrina.</p> <p>D. Erantzun guztiak zuzenak dira.</p>
514	<p>Las personas espectadoras y usuarias tienen derecho a utilizar los servicios generales en la forma y con las limitaciones que establezca o determine la empresa en instrucciones y normas particulares.</p> <p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p>Ikusleek eta erabiltzaileek zerbitzu orokorrak erabiltzeko eskubidea daukate, enpresak jarraibide eta arau partikularretan ezarritako moduan eta muga berekin.</p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
515	<p>De las siguientes afirmaciones, ¿cuál se ajusta más a la definición de</p> <p>A. Una experiencia afectiva agradable.</p> <p>B. Una experiencia afectiva desagradable.</p>	<p>Baieztape hauetatik, zein da emozio hitzaren definizio egokiena?</p> <p>A. Esperientzia afektibo atsegina.</p> <p>B. Esperientzia afektibo desatsegina.</p>

	<p>C. Una experiencia afectiva que da lugar a una conducta de respuesta concreta.</p> <p>D. Una experiencia enriquecedora.</p>	<p>C. Erantzun-jokabide zehatz bat eragiten duen esperientzia afektibo bat.</p> <p>D. Esperientzia aberasgarri bat.</p>
516	<p>Las personas usuarias o espectadoras tienen derecho a la devolución de las cantidades pagadas:</p> <p>A. Cuando hay cualquier cambio en el espectáculo.</p> <p>B. Cuando haya un retraso en el espectáculo.</p> <p>C. Si el espectáculo no es de su agrado.</p> <p>D. Si hay una modificación sustancial o una suspensión del espectáculo.</p>	<p><b>Ikusle eta erabiltzaileek ordaindutako kopuruak berreskuratzeko eskubidea daukate:</b></p> <p>A. Ikuskizunean edozein aldaketa bada.</p> <p>B. Ikuskizuna atzeratzen bada.</p> <p>C. Ikuskizuna haien gustukoa ez bada.</p> <p>D. Iragarritako ikuskizuna edo jolas-jarduera funtsean aldatu edo bertan behera geratzen bada.</p>
517	<p>Toda persona víctima politraumatizada con un mecanismo de lesión importante es sospechosa de presentar una lesión medular hasta que se compruebe que no es así.</p> <p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p><b>Biktimak politraumatismoa eta lesio mekanismo garrantzitsu bat badauzka, bizkarrezur-muineko lesioa izan dezakeela sumatu behar da, hori hala ez dela egiaztatu arte.</b></p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
518	<p>La defensa personal se orienta a técnicas de protección ante un ataque; la autoprotección personal, en cambio, es más preventiva: incluye tácticas para minimizar las consecuencias y salir de las situaciones de riesgo</p> <p>A. Falso</p> <p>B. Verdadero</p>	<p><b>Defentsa pertsonala eraso baten aurrean norbera babesteko teknikak dira; autobabes pertsonala, ordea, prebentiboagoa da: ondorioak gutxitzeko eta arrisku egoeretatik ateratzeko taktikak barne hartzen ditu.</b></p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Egia</p>
519	<p>Las heridas por arrancamiento:</p> <p>A. Ninguna de las respuestas es correcta.</p> <p>B. Son causadas por un agente romo, sin filo ni punta.</p> <p>C. Son causadas por un mecanismo de tracción o estiramiento, se caracterizan por presentar gran separación, irregularidad y despegamiento de los bordes.</p> <p>D. Son producidas por agentes puntiagudos y alargados; en ellas predomina la profundidad.</p>	<p><b>Erauzteen ondoriozko zauriak:</b></p> <p>A. Erantzun guztiak okerrak dira.</p> <p>B. Ahorik eta puntarik gabeko objektu kamuts batek eragindakoak dira.</p> <p>C. Trakzio edo luzatze batek eragindakoak dira. Zauri horien ezaugarriak dira ertzen arteko tarte handia, irregulartasuna eta ertzak berezita.</p> <p>D. Objektu zorrotz eta luzangek eragindakoak dira; zauri horiek sakonak izan ohi dira.</p>
520	<p>Las personas titulares u organizadoras pueden establecer condiciones objetivas específicas de admisión y permanencia en virtud del derecho o reserva de admisión.</p> <p>A. Falso.</p> <p>B. Sólo condiciones de admisión, pero no de permanencia.</p> <p>C. Sólo condiciones de permanencia, pero no de admisión.</p> <p>D. Verdadero.</p>	<p><b>Titularrek edo antolatzaileek baldintza objektibo espezifikoak ezarri ahal izango dituzte onartzeko eta egoteko, sarrera onartzeko eskubideari edo ukatzekoari jarraikiz.</b></p> <p>A. Gezurra</p> <p>B. Onartzeko baldintzak bai, baina egoteko baldintzak ez.</p> <p>C. Egoteko baldintzak bai, baina onartzeko baldintzak ez.</p> <p>D. Egia.</p>
521	<p>Las personas titulares de establecimientos públicos u organizadoras de espectáculos y actividades recreativas pueden establecer condiciones objetivas de admisión y permanencia.</p> <p>A. No</p> <p>B. Si</p>	<p><b>Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek jendea onartzeko eta bertan egoteko baldintza objektiboak ezarri ahal dituzte.</b></p> <p>A. Ez</p> <p>B. Bai</p>
522	<p>Son síntomas de shock:</p> <p>A. Las intervenciones quirúrgicas.</p> <p>B. Las intoxicaciones.</p> <p>C. Los aplastamientos.</p> <p>D. Ninguna de las respuestas es correcta.</p>	<p><b>Shockaren sintomak hauek dira:</b></p> <p>A. Interbentzio kirurgikoak.</p> <p>B. Intoxikazioak.</p> <p>C. Zapaltzeak.</p> <p>D. Erantzun guztiak okerrak dira.</p>
523	<p>¿Cuál de las siguientes es función del servicio de admisión?</p> <p>A. Informar inmediatamente al personal de seguridad privada, si lo hubiere, de las alteraciones del orden que se produzcan en los accesos, para coordinar una respuesta conjunta.</p> <p>B. Informar inmediatamente al personal de seguridad privada, si lo hubiere, de las alteraciones del orden que se produzcan en los accesos. Si no hay vigilantes de seguridad privada, deben informar directamente a la policía municipal.</p> <p>C. Informar inmediatamente al personal de seguridad privada, si lo hubiere, de las alteraciones del orden que se produzcan en los accesos. Si no hay vigilantes de seguridad privada, deben informar directamente a los cuerpos de policía del País Vasco en el ejercicio de sus respectivas competencias.</p> <p>D. Informar inmediatamente al personal de seguridad privada, si lo hubiere, de las alteraciones del orden que se produzcan en los accesos. Si no hay vigilantes de seguridad privada, sus funciones serán realizadas por el servicio de admisión.</p>	<p><b>Hauetako zein da onarpen-zerbitzuaren eginkizuna?</b></p> <p>A. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan, erantzun bateratu bat koordinatzeko.</p> <p>B. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, zuzenean udaltzainei jakinarazi behar diete.</p> <p>C. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoei jakinarazi behar diete, kidego horietako bakoitzaren eskumenera arabera.</p> <p>D. Segurtasun pribatuko langileei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik egon ezean, horien eginkizunak onarpen-zerbitzuak burutuko ditu.</p>
524	<p>Síntoma general de hemorragia:</p> <p>A. Respiración rápida y superficial.</p> <p>B. Respuesta a estímulos dolorosos.</p> <p>C. Rigidez del cuello.</p> <p>D. Todas las respuestas son correctas.</p>	<p><b>Hemorragiaren sintoma orokorra:</b></p> <p>A. Arnasketa azkarra eta azalekoa.</p> <p>B. Estimulu mingarriei erantzutea.</p> <p>C. Lepo zurruna.</p> <p>D. Erantzun guztiak zuzenak dira.</p>
525	<p>La curva de la hostilidad. En la fase 4, de afrontamiento:</p> <p>A. En esta fase no hay que intervenir. Lo que se diga en este momento sólo servirá para complicar la situación.</p>	<p><b>Etsaitasun-kurba. 4. fasean, aurre egite-fasean:</b></p> <p>A. Fase horretan ez da esku hartu behar. Une horretan esaten denak egoera zailtzeko baino ez du balio izango.</p>

	<p>B. La persona sigue reaccionando intensamente, buscando el enfrentamiento.</p> <p>C. Pueden usarse expresiones como "entiendo el problema", para hacer ver que se intenta hacer algo por la persona.</p> <p>D. Se debe demostrar que la persona que ha entrado en cólera estaba equivocada.</p>	<p>B. Pertsonak indar handiz erreazionatzen jarraitzen du, liskarra sorrarazi nahian.</p> <p>C. "Arazoa ulertzen dut" bezalako espresioak erabil daitezke, pertsona horri erakusteko bere alde zerbait egiten saiatzen ari dela.</p> <p>D. Sumindu den pertsona oker zegoela erakutsi behar da.</p>
526	<p>¿A partir de qué edad se puede entrar en un Bingo?</p> <p>A. 18 años</p> <p>B. 17 años</p> <p>C. 16 años</p> <p>D. 15 años</p>	<p>Zein adinetatik aurrera sar daiteke bingo batean?</p> <p>A. 18 urte</p> <p>B. 17 urte</p> <p>C. 16 urte</p> <p>D. 15 urte</p>
527	<p>Una de las siguientes es una actitud o conducta a mostrar ante una persona irritada y hostil:</p> <p>A. Enfrentarse individualmente a situaciones o personas que se prevé que puedan comportarse conflictivamente, corriendo el riesgo de sufrir una agresión.</p> <p>B. Orientar la mirada al interlocutor.</p> <p>C. Perder de vista las manos o dar la espalda al potencial agresor.</p> <p>D. Responder a las agresiones verbales, insultar, encararse, desafiar o agredir al agresor.</p>	<p>Haserre eta suminduta dagoen pertsona baten aurrean, jarrera edo jokabide hauetako bat erakutsi behar da:</p> <p>A. Era konfliktiboan porta daitezkeen pertsoneri egoerei bakarka aurre egin, eraso bat jasateko arriskua izan arren.</p> <p>B. Solaskideari begira jarri.</p> <p>C. Eskuei begia kendu edo balizko erasotzaileari bizkarra eman.</p> <p>D. Hitzeko erasoei erantzun, eta erasotzaileari aurre egin, iraindu, erronka jo edo erasotu.</p>
528	<p>La Ley 10/2015 de espectáculos públicos y actividades recreativas:</p> <p>A. Es de 1 de octubre de 1992.</p> <p>B. Es de 23 de diciembre de 2015.</p> <p>C. Es de 27 de julio de 1310.</p> <p>D. Es de 8 de noviembre de 2024.</p>	<p>Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legea:</p> <p>A. 1992ko urriaren 1ekoa da.</p> <p>B. 2015eko abenduaren 23koa da.</p> <p>C. 1310eko uztailaren 27koa da.</p> <p>D. 2024ko azaroaren 8koa da.</p>
529	<p>Toda víctima politraumatizada con un mecanismo de lesión importante es sospechosa de presentar una lesión medular hasta que se compruebe que no es así.</p> <p>A. Es cierto, pero sólo si la persona está inconsciente.</p> <p>B. Es cierto, y para comprobarlo, pediremos a la persona que se levante.</p> <p>C. Falso.</p> <p>D. Verdadero.</p>	<p>Biktimak politraumatismoa eta lesio mekanismo garrantzitsu bat badauzka, bizkarrezur-muineko lesioa izan dezakeela sumatu behar dugu, hala ez dela egiaztatzen den arte.</p> <p>A. Hori bakarrik egia izaten da pertsona konorterik gabe badago.</p> <p>B. Egia da eta hori egiaztatzeko, pertsona horri altxatzeko eskatuko diogu.</p> <p>C. Gezurra.</p> <p>D. Egia.</p>
530	<p>El horario general de cierre de los establecimientos y de finalización de otros espectáculos o actividades se podrá incrementar, en los siguientes casos:</p> <p>A. Dos horas como máximo por autorización municipal conforme a lo dispuesto en el artículo 37 de este decreto.</p> <p>B. Media hora desde el 1 de junio al 30 de septiembre.</p> <p>C. Todas las anteriores son ciertas.</p> <p>D. Una hora y media los viernes, sábados y vísperas de festivos.</p>	<p>Establezimenduen eta bestelako ikuskizun eta jardueren amaiera-ordu orokorra luzatu ahal izango da, kasu hauetan:</p> <p>A. Gehienez ere bi orduz udal-baimenagatik, Dekretu honen 37. artikuluan zehaztuta bezala.</p> <p>B. Ordu erdiz ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.</p> <p>C. Aurreko guztiak zuzenak dira.</p> <p>D. Ordu eta erdiz ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan.</p>
531	<p>Tratamiento de las heridas abdominales:</p> <p>A. Es conveniente dar líquido a la víctima, para comprobar que no existe fuga de fluidos gástricos.</p> <p>B. No es una lesión preocupante, pues no hay peligro de muerte.</p> <p>C. No hay que dar de comer ni beber a la víctima.</p> <p>D. Todas las respuestas son correctas.</p>	<p>Zauri abdominaletarako tratamendua:</p> <p>A. Komeni da biktimari likidoa ematea, fluido gastrikoan ihesik ez dagoela egiaztatzeko.</p> <p>B. Ez da lesio kezkarri bat, ez baitago hiltzeko arriskua.</p> <p>C. Biktimari ez zaio jaten ez edaten eman behar.</p> <p>D. Erantzun guztiak zuzenak dira.</p>
532	<p>La siguiente es una técnica de autocontrol.</p> <p>A. Autorregulación: cuando se está en calma, detectar y anotar los momentos en los que se pierde el control.</p> <p>B. Flexiones de torso: se baja el torso en repetidas ocasiones, controlando la respiración.</p> <p>C. Respiración superficial, inspirando rápidamente para aumentar el volumen de oxígeno en el cerebro.</p> <p>D. Todas son correctas.</p>	<p>Hau autokontrolerako teknika bat da.</p> <p>A. Autorregulazioa: lasai zaudenean, kontrola galtzen duzun uneak antzematea eta idaztea da.</p> <p>B. Gorputz-enborraren flexioak: gorputz-enborra hainbat aldiz tolestu behar da, arnasa kontrolatuz.</p> <p>C. Azaleko arnasketa, arnasa azkar hartu behar da burmuinean dagoen oxigenoaren bolumena handitzeko.</p> <p>D. Aurreko guztiak zuzenak dira.</p>
533	<p>Las personas titulares de los establecimientos y las organizadoras de espectáculos y actividades recreativas están obligadas a impedir el acceso a los mismos:</p> <p>A. Cuando el aforo no ha alcanzado el máximo previsto.</p> <p>B. Cuando el aforo se halle completo.</p> <p>C. Cuando la información sobre las condiciones de admisión esté al alcance de los espectadores o asistentes.</p> <p>D. Cuando prevea que el cliente va a mostrar conductas violentas que pongan en peligro el desarrollo del espectáculo.</p>	<p>Establezimendu publikoen titularrek edo ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek ez dute sartzen utzi behar:</p> <p>A. Edukiera aurreikusten den gehienezko mugara heldu ez bada.</p> <p>B. Edukiera beteta badago.</p> <p>C. Sartzeko onarpen-baldintzei buruzko informazioa ikusleen edo joan direnen eskura badago.</p> <p>D. Aurreikusten bada bezeroak indarkeriazko jokabideak izango dituela eta horiek ikuskizunaren garapen egokia eragotziko dutela.</p>
534	<p>El ejercicio de la reserva de admisión no puede conllevar discriminación por razón de origen o lugar de nacimiento.</p>	<p>Sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea ez da aitzakia izango diskriminaziorik egiteko jatorriagatik edo jaiolekuagatik.</p>

	A. Falso B. Verdadero	A. Gezurra B. Egia
535	Las organizadoras de espectáculos y actividades recreativas están obligadas a impedir el acceso a los mismos y la permanencia en ellos en determinados supuestos	Kasu batzuetan ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileek sarrera ukatu beharko dute eta ez dute bertan egoten utzi behar.
	A. Falso B. Verdadero	A. Gezurra B. Egia
536	El personal municipal, para ejercer las funciones del servicio de admisión en establecimientos de titularidad pública:	Udal langileek titulartasun publikoko establezimenduetan onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak betetzeko:
	A. En ningún caso puede ejercer esas funciones. B. No tiene que obtener la habilitación como personal del servicio de admisión. C. Sólo puede ejercerlas subordinado al personal del servicio de admisión. D. Tiene que obtener la habilitación como personal del servicio de admisión.	A. Ezin dituzte eginkizun horiek inola ere bete. B. Ez dute onarpen-zerbitzuko langile izateko gaikuntza lortu behar. C. Onarpen-zerbitzuko langileen menpe egonda baino ezin dituzte bete. D. Onarpen-zerbitzuko langile izateko gaikuntza lortu behar dute.
537	Es condición general de admisión y permanencia:	Sartzea eta bertan egotea onartzeko baldintza orokorra hau da:
	A. Exhibir símbolos que inciten a la violencia, al odio o supongan apología de actividades contrarias a los derechos fundamentales. B. Ninguna de las respuestas es correcta. C. Poseer la entrada, abono o título exigible, en los casos que este sea necesario. D. Ser mayor de edad.	A. Indarkeria edo gorrotoa sustatzen duten ikurrak eramatea, edo oinarrizko eskubideen kontrako jardueren apologia adierazten dutenak. B. Erantzun bat ere ez da zuzena. C. Nahitaezkoa den kasuetan, sarrera, abonamendua edo sartzeko beharrezkoa den bestelako titulua izatea. D. Adinez nagusia izatea.
538	Se consideran heridas graves:	Zauri larriak hauek dira:
	A. Cortes y heridas superficiales, que no afectan a órganos importantes. B. Heridas por mordedura. C. Heridas que no afectan a vasos importantes. D. Ninguna de las respuestas es correcta.	A. Azaleko ebaki eta zauriak, organo edo hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak. B. Hozkaden ondoriozko zauriak. C. Hodi garrantzitsuei eragiten ez dietenak. D. Erantzun guztiak okerrak dira
539	En una discoteca ¿Antes de qué hora está prohibido el funcionamiento de equipos audiovisuales, música, pistas de baile, y en general cualquier actividad que pueda generar ruidos molestos?	Diskoteka batean, zein ordu baino lehen ezin dira ikus-entzunezko edo musikako ekipoak funtzionamenduan egon, ezta dantzako pistak eta, oro har, zarata gogaikarriak eragin ditzakeen edozer jarduera egin?
	A. Antes de las 11:00 horas. B. Antes de las 11:30 horas. C. Antes de las 12:00 horas. D. Antes de las 12:30 horas	A. 11:00ak baino lehen. B. 11:30ak baino lehen. C. 12:00ak baino lehen. D. 12:30ak baino lehen.
540	¿Hasta cuándo hay que continuar la RCP?	Noiz arte jarraitu behar da BBB egiten?
	A. Hasta que alguien nos vea y pida ayuda. B. Hasta que la víctima pueda caminar sin ayuda. C. Hasta que llegue el DEA. D. Hasta que pasen veinte minutos.	A. Norbaitek gu ikusi eta laguntza eskatzen duen arte. B. Biktima laguntzarik gabe ibiltzeko gai izan arte. C. KDA heldu arte. D. Hogei minutu pasatu arte.
541	Los espectáculos públicos, las actividades recreativas y los establecimientos públicos o espacios donde se desarrollen deben reunir las siguientes condiciones:	Jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerak eta horiek egiten diren establezimendu edo leku publikoek baldintza hauek bete behar dituzte:
	A. Condiciones de seguridad y de accesibilidad universal B. Condiciones de seguridad y salubridad e higiene C. Condiciones de seguridad, de salubridad e higiene y de accesibilidad universal D. Únicamente condiciones de seguridad	A. Segurtasun- baldintzak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak B. Segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak C. Segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak, baita irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ere. D. Segurtasun-baldintzak baino ez
542	Se define como titulares del establecimiento público:	Se define como titulares del establecimiento público:
	A. Las personas jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él. B. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten cualquier establecimiento, con ánimo de lucro o sin él. C. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él. D. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, sólo con ánimo de lucro.	A. Las personas jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él. B. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten cualquier establecimiento, con ánimo de lucro o sin él. C. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, con ánimo de lucro o sin él. D. Las personas, físicas o jurídicas, públicas o privadas, que exploten los establecimientos públicos a los que se refiere esta ley, sólo con ánimo de lucro.
